

Zarautzen, 1996ko apirilaren 26an
(Ageriko batzarra)

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., buruordea
Altuna, P.
Charritton, P.
Davant, J.L.
Diharce, X.
Kintana, X.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
San Martin, J. eta
Villasante, L., euskaltzainak

Agirretxe, E.
Aulestia, G.
Gandiaga, B.
Iriondo, J.M.
Kortazar, J.
Laspiur, I.
Lizundia, J.L.
Mujika, L.M.
Otegi, K.
Zearreta, J.J., euskaltzain ugazleak

Zarautzen, udaletxean, 1996ko apirilaren 26an, bildu da Euskaltzaindia, aldamenean aipatzen diren euskaltzain oso eta urgazleak gelan zirela. E. Knörr idazkariaren orde-z J.L. Lizundia idazkariordea aritu da idazkari bezala. Udaletxeko areto nagusian mahaipuruan eseri dira: Imanol Murua, Zarauzko alkatea; Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea, eta Xabier Huizi, Gipuzkoako Diputazioako euskara zuzendaria. Aretoan aurkitzen dira baita ere zenbait hiritar, haien artean, Lizardiren familiakoak.

Lehendabizi, Imanol Murua alkate jaunak ongi etorri eman die bilduei, aditzera emanez Xabier Lizardiren mendeurrena dela eta Euskaltzaindia, bai joan den ostiralean, bi batzordeak bilduz, eta egun hileroko osoko bilkura eginez, ohore handia ematen diola Zarauzko herriari. Bestalde, Lizardiren mendeurreneko ekitaldi akademikoak ageriko bilkura honekin amaitzen direla aditzera esan du.

Jarraian, J. Haritschelhar euskaltzainburuak agurrezko hitz batzuk esan ditu, besteak beste, azalduz nola arduratzen den Euskaltzaindia, ez bakarrik hizkuntzarekiko arau eta beste batzordeetako ikerle batzuek, baita literaturaz ere, Literatura Ikerketa batzordearen bidez eta garro batzorde honek prestatu dituen txostenak batzordekideen bidez bereziki. Gero, banan-banan txostengileak aurkeztu ditu, denak doktoreak direla azpimarratuz, gehienak unibertsitateetan irakaskuntzan dihardutenak. Guzti hau, Zarauzko bere jaioterrian Lizardiri omenezko ospakizun hau antolatuz.

Segidan, txosten hauek irakurri dituzte egileek, salbu Aurelia Arkotxak, berau Kananan baita. Bere orde-z, J. Haritschelhar euskaltzainburuak irakurri du. Hara hor txostengile eta lanak: Juan Cruz Igerabide: "Herri lirika Lizardirengan"; Luis Mari Mujika: "Paisaiaren trataera"; Aurelia Arkotxa: " 'Bultzi leiotik' olerkiaren azterketa"; Lourdes Otaegi: "Lizardiren kazetaritzaren inguruan"; Karlos Otegi: "Lizardiren ametsezko bi-diaia"; Jon Kortazar: "Orduko literatura eztabaidak".

Amaitzeko, J. Haritschelhar euskaltzainburuak berak duela hogeita hiru urte Lizardi buruz "Gráficas Valverde" k egindako liburuan idatzitako sarrera irakurritz, eta Imanol Murua alkateak guztiei eskerrak emanez, bukatu da ospakizun ageriko bilkura hau.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria